


Erref. kodea: LAF-207-064

z Izenburua: Antzerki lanak, euskaraz





1  
Betelemeko artzainak

Zonbit artzain su baten inguruan ... batzu chitchuketa,  
bertze batzu gastain jaken . eta hola....

1

Natan .. Nik ere ichtorio bat badakit ; joan den neguan  
Matias zaharrari aditua , gaur bezala ardi-zain  
ari ginen gau batez , su baten inguruan ...

Abner .. Zoin duk , zoin ?

Natan .. Bildotcharena !

Akiba .. Yaka nezake , oraino bildotch lehertu edo hotzak  
hit batez mintzatuko zaikula ..

Natan .. Behatzen hortik ! irri egitekoa dut , ene ichtorioa ..

Denek .. Enak ba ... enak .. enak berehala ..

Natan .. Jerusalemen Anto<sup>na</sup> enaiten dituen domea erakiti-  
tzen ari zuten , badakizue , orai gobernadoreea egiten  
baita ? hura ... Zer nahi langile baten , alabainan :  
hargin , zurgin ,

Abner .. enegeren sorgin...

Akiba .. Aho ichtitik , hi !

Natan .. Ichaka peontzan ari zen , eta lanetik lekora ,  
hain handi batzuen gainean jarririk , langilek beren  
othoruntza egiten zuten , ogi eta jaki , zakuak ekkari  
zutenetik jan eta jan ... Eta badakizue nolakoa den  
Ichaka zeken hori , bethi ni , biba ni eta oro-ni , -  
bertzeak ur hotzetik ari zirelarik , hanek chahako  
alimale bat arno gordetzen zuen , eta nehoi jasta ere  
eskaini gabe , churga-churga ari zen bere chokuan ,  
haur gosea tititik bezala ... Chimun , lehenik ohartu  
baitzen Ichakaren jokoari , laguneri erantzioten :



«Hitz eta promes dautzuet egun batez ordaina emanen  
doetala!» Hain chuchen bildotek bat funditu  
baitzitzarion ageri-arte batean, behar izan zuen hil  
eta jan. Chimunek bildochkia ekarri zuen lantegiak  
eta eguerditan lagun guzieren partitu, salbu Ichakari.  
Ichaka nehun ez zauten; haragi puska hoik ikusten  
zituen, baratzi-ziesterak ageri, bafada gocho bat  
zarotela; begiak argi-argiak zituen; segur  
ezagun zen bildochkia gugotik jastatuko zuen haret  
ere... Eta Chimunek galdegin zion, maltzur-maltzura:  
— «Erazu, Ichaka, maite duguia bildochki  
hotza? — Maite dutanetz? Dutarik baduguia?  
— Orizu! bildotekki hotzaren jateko, aski duzu  
bezperatik ene-araztea!»

Denek Ha! Ha! Hi! hi! ..

Natan Hango imiak! Ez zuen giza-gaizu Ichakak  
hilako arazetukik uske!

Ikiba Ez ahal zitzaion guti gaitzitu!

Abner Zer muturrekoa!

Aitaso Eta hik, Johani, ez duk deusik erraiten?

Akiba Zertan duk gogua?

Johani — Deusetan... Hemen beha nago... pindarrak  
ikusten dituk ihaunekin igaiten, eta egurra hor  
entzuten duk intzirik erretzen ari... Oichtron nere  
buruari galdeku nindagon, ea norat doatzin  
gauza poltit horiek, eta gu ere hola suntsitzen  
gizenetz, hiltzeko tenorea heldu denean?

Aitaso Pentsatendu bitchiak dituk, muthikoa! Ez duk  
holako ametsik atchiki behar... Emak kantunio  
bat: hote duk!

Johani Aldapeko sagunaren adanaren puntan...

Abner Kantua ez duk itsusia, bainan ez duk biziki  
alegera!

Aitaso (ununerat so) Po! kantcheko zaldia, hesiar  
konta! Ezagutzen duzue?

Akiba Bartholoena da narki!

Natan Akil haren karatzerak, Johani! Etcherak  
joan dadin!

Abner Zaldiz mintzo gizenaz geroz, aditu duzue  
Apolonen ichtoria?

Denek Ez! Ez! Itonda-zak!

Abner Kafarnauneko azien merkaturan zaldi lasterak  
ba omen ziren, eta zaldi famatuenetan batto  
bazen Apolon erraiten zotena... grekotar  
paganoen jainko faltuari bezala; bainan  
jainko faltu hau ez zen asto pullo bat baizik!

Denek in: Ha, ha, ha...

Abner Beraz, Kuakin, Jakobe, eta Kachketa, hiru  
miserable, sosaren usainik ere ezagutzen ez zutenak  
wibildu ziren lasterketako pentzerak, behar zutela  
zertait ikusi, eta kitorik... Kitorik sartzeko,  
lanak ziren! Heldu dira bada hiru lagunak  
terro-terro billeten hartzeko etchola ttipi haren  
aintzinerat... ~~Iturri~~ Iturri eta hostik, billetik gabe,  
pentzeko kestarak. Hor, gure Kuakin, burua  
gora, ahal bezenbatetako jaun-aire bat hartuz,  
iragaiten da, erranez boz ezki batekin: Apolon  
zaldiaeren nauvia!... Utzi zuten pasatzerak. Jakobek  
aire atchaman zuen behar zuen gezurra, eta



4  
boz idor batekin eran zuen: Apolon zaldiaren  
marechala! Utzi zuten hau ere pasatzerat. Itachketa  
buruari hazka hasi zen, ez baitzakien zer pentsa!  
Bet-betan zerbait gogoratuz, banuk! eta bortsaper  
urhats eginik gibelerat, baltta hartzen du, eta  
chimista bezala iragaiten du keeta, oihu eginez:  
Apolon ber-bera!

Senek ino ... Ah! Ah! hi! hi!

Akiba ez duk gaizki pentsatua!

Akaso Ez dakizue zer pentsatzen dutan?

Senek Ez!

Akaso Prichte dela egiatzki mundu hontan eremaiten  
dugun bizia! Behi nor nola atihemanen dugun  
ari gira, elgar eraganuz, ez baginu bezala  
aski miseria gura ezintbertze, eritasun, dolu  
eta nolakoekin!

Johani. - Ba, eta ni ere ene buruarekin pentsaketa ari  
nintzen orokion, egurrea intzirika ~~du~~ ari baitzen,  
sulamen erdian sofritu balu bezala ... toki  
terean entzuten balira oro betan sofritzen  
duten guzien oihuak, kolpatuen uhuri, doluan  
direnen nigar eta hipa, hiltzen ari direnen azken  
chotinak, ... oisus! zer itkaragariko hanamantzer  
bitakeen! Hiltzeko ere aski balitake!

Abner Ago ichilik, haurra! Mardatzen girtuk, hize  
zozokerekin! Bertzenaz ere, gainko maitea  
gainko ona duk, zer debru! Eta hitz-eman  
zaukuk madadizione guziak finituko direla  
egun batez. Ez da hala, aitaso?

Aitaso Ba, bada hala duk, Abner. Eta ene aita



zenak profeta chakar baten kantua bazakian,  
 Mesias hitz-emaiten zautakatu zautkuna.

Johani Kantua badakizu ?

Aitaso Ez dena, ez; baina huna halere zontart  
 kotla: (pastoraren airean)

Betleem herri tipia, oi ethorkizun handia!

Hor duke Birjinak semea, Nausi guzien nausia!

Mesias errege jaunna, ez duzu zer jan, zer edan!

Zer duzu, iduri ohoina, zuhaitz hostarik ditindan?

Hil-hobirik jerki da, argiz inguratutik

Zeru-alde badaa, debrua garhaitutik

Zuzentasun, amodio, argi eta bozkario!

Engoitik nehorik ez dio hoieri erran adio!

Bertzerik ez dakit...

Nathan Gauza ederrak dira baina ez oha ederegiak?

X Abner Enazu, aitaso, sinesten dituztu ichtorio horiek  
 guzrak? Betelemetik holako Salbatzaile bat sortzea,  
 ez da entrebaleko gertakaria!

Aitaso Zer nahuk, muthikoa, nuntart sortu behar dik!

Hik herria tipiskoa atchemaiten dukala, David  
 erregea ere lehenago antzain-ethola batetik athera  
 zuian!

X Abner Funtsean, hala da!

Akiba Ba, baina birjina hoi, eta errege honen miseria,  
~~eta~~ hiltzea, ~~eta~~ hobirik atheratzea, ~~nehorik~~ nehorik  
 ikusi ez diren gauzak dira!

Aitaso Alabainan, gertakari bakotcha ez duk behin baizik  
 gertatzen, giza-gaizoa!

Akiba Ba eta hala duk hoi ere!



Abner J Etan noizko dituztu kanbio eder horiek oro? Uste dugu hemendik-eta zombait urte barne mundu guzira zuzen eta chuchen ibiliko zaizkula, den gutieneko makhunik gabe

Aitaso Ez diat sekulan holakorik erran, mutirikua! Ene aita zenak, harritz ikusia eta ikasia baitzen, erraiten zian: denbora duk denbora gauza guziren moldura! Eta eni iduritzen zaizak Mesiasak ez urteak, bainan mendeak beharko dituela milaka, gizonen biltzeko eta jendetzeko. Haatik gauza handi hauren hastapena, kaskotik ez zaizak nehorik atheratuko, biziki hurbildua dugula! X

Denek Zertako? Zertako?

Aitaso Ezagutzen dugue dudarik gabe Zakarias zaharra?

Itatan Zazpi beleen ihurriaren ondoan ~~den~~ egiten den artzain zaharra?

Aitaso Ba hura!

Sohañi Haren mandoak begi bat beltcha eta bertzen urdura barta?

Aitaso Hura eta bera! ... Ez da gero nor nahi Zakarias zaharra! Zeruko izarrak, arthaldeko ardiak bezain ontra ezagutzen ditu gizon horiek, izenak eta oro; badaki nundik norat ari diren, eta zer tothete garizak dituzten, chitako arrotzeen huts egin-arazteko, ala ikas-untzi baten uzkaizteko, ala bertz zangotako aratxe baten sar-arazteko!

Akiba Eta zuk sinesten?

Aitaso Haura, ez daukat erraiten ene sinesteen berri; erraiten dautzuet hasek zer duen irakurtzen izarren zimamaretan; eta berri-beritan Arabiako aldeak

izar berri bat ikusten omen du, argi-argia, egun guziaz eskualde hauietarat buruz heldu dena; hori ere zerbaiten seinalea izan behar da!

Itatan Gure apez, batek ere kondatzen zaizkun larunbatean ba omen dela Jerusalemeko tenploan jakintsun chakar bat, Simeon, zer nahi liburu egin duena; bethi eskaintzetako aldarearen ondoan jarria omen dago, haur sortu-berriak harat ekartzen baituzte, ikusteko ea gainkoari orkeini hauren artean, ez duenetz Mesias ezagutuko!

Abner X Aser jendakiako emazte batek ere Sabbatharilean, hil gabe ikusi gozo du ... Andere soindu horiek badituzke orai lauetan hogoi eta hamar urte hurbil ... Orduan ...

Akiba geroak erranen du!

## II

Jonatan Gau on, adichkideak!

Denek Gau on, Jonatan ...

Aitaso Zer da berri lane hoitan?

Jonatan Izialdura bat ona bildu dutala, oichiron... Betelemetik huratetxoan, ezagutzen dugue, kantchet, ezkenetarik, ardien karpea?

Denek Ba ...

Jonatan Han iragaitean, zer ikusten dut? Ilunbeka ibilki, bi arrotz: gizon bat eta nekakoko bat. Ahapeka bezala mintzo ziren; asto bat bazuten berekin, eta karpean sartu dira esku-argi handi batekin ...

Aitaso Zer kara zuten!



Jonatan Nik Eritoko buhama batzuentzat utzi ditut ... Eta emekino hurbildu niz ikusteko zer ari ziren: gizonak jateko zerbaite ahera du alportchetarik; ohoitza egin dute; baina nekatoak ez du deusik jan; biziki nekatur iduri zuen; lasto-garba baten gainean jartzen da, erdi-etzanik, pawsatzeko bezala ... gizonak jaten zuten eta ogi-zukka batzue ere emaiten zizkion artetarik astoñolari, eta halako pena batekin so egiten zion bere laguntza hari!

Johani gende gisakoak dira behar bada?

Jonatan Gisakoak? ... Ja! ja! ez sobera fida saildu aise hoieri! gende mindulin hoietarik ez uste izan deus onik! Abisatzerat jin nizaitzue kasu egiteko, zuen onetan; orobat bihar goizean ardi bat edo bildotz bat faltatuko zaitzue ...

Abner Belki komedia berri mundu hontan: belki bi begiak harmaturis orori barrantan egon behar!  
(Hainbertzenarekin eguberrito kantika bat entzuten da egri-egria urrunera: <sup>edo gloria in excelsis</sup> Oi eguberrito gaua, hitzirik gabe)

Johani ?o! zer da hau? Soinu bat!

Jonatan Abner Aitaso { Hala duk!

Akiba Nik ez dut fitzik aditzen! Beharriak tutatu zaitzitezue naski! ... Eta, adichkidea, zontak urthe ditid, hize iduriko, delako erromes honet?

Jonatan Bah! nik dakita? Hogo bat urthe, behar bada?  
(Beniz ere kantua entzuten da)

Aitaso Aldi hontan, haatik ... ez dut beharri-tutarik!  
Oh! eta... zer ditake hor heldu zaitzun mamu



churia ?

III

Oro horrituak dande, aingeru bat heien arterat sartzearekin, argi-argia, kantua bethi aintzina ari delarik ....

Aingerua Artzain maiteak, ez izan beldurrik; ez dautzuek minik eginen ...

Aitaso Nor zitugu, ganna, edo... Anderea !

Aingerua Zeruko mezularia !

gohari Bas-anderea, behar bada ?

Aingerua Ez, basanderea, ez ! Basanderea ez da ametsetan baizik bizitzen, eta ez du ametsez bertzerik den ere ekartzen !

Akiba Nor zira bada ?

Aingerua Aingerua !

Denek Aingeru bat ! (belhannikatzen dira)

Aingeruak Amen, amen, amen, lur-alde, itsaso eta zeruetan, goresia, onetsia eta jaurtsia izan bedi, orai, gero eta bethi, orotako gau maitagarri eta zuzen bakhara : amen, amen, amen.

Chuti zaizte, artzainak, eta jakizue gainkoa uritaldu zaiola bere populuari; denborak ethonikak dira; Mesias gau huntan sortu da, bildotx baten pare, aberetegi tchar batean.

Aitaso Eta utziko othe gitzute haren adoratzerat ?

Aingerua Bai zeren, zuek, jende chumek trochen artek ere gainkoaren lorra asmatuko baituzue ! Zuek badakizue gainkoak egin ez dezakenik ez dela.



Johari eta norat goazke, jaun Aingerua ?

Aingerua Betelemetik hunatekoan, ezagutzen duzue, hantzet, ezkeretarik, andien harpea ? ( denek gonatani so) Idiazen eta astoaren artean haur sortu berri bat aurkituko duzue, a bere aska batean etzanik. Hurra da. Adora-zazue

Amen, amen, amen, etc. ( gorago bezala)

Aingerua johan da, argia hasten eta kantua ere

IV

Aitaso Zoazte berehala ! Ni chaharregi niz ... Andiak zaitzudako ditut

( Oru badoatzgi behiakara )

Jaiko jauna, ni ez aski azkar izanen, gazte hoieri jarraitzeko, eta zure Mesias-en adoratzeko !... Adin batio du, jauna, nahiz ez dudan ikusten, sinesten dut ; eta zure semea hemendik nahi dut adoratu !

Aingerua azeritzen zaro eta enaiten dio :

O artzain fededuna, itusi gate sinetsi baituzu, huna non heldu nizaitzun gaitzakoak berak igorritik ... Eranen dautzut zer gertatzen den Betelemeko herrian ... Jesus hau ttipi dibinoa, aingeruz inguratua da ; argi eder batek distiratzten du mendi alde guzian ; bazter guzietarik artzainak deitu ditugu haur honen oinetarak, eta chendia guzietan lasterka heldu dira harpeari buruz ...

Hanak orduko belarrikatzen dira, beren

estakintzari egiten dituzte, eta denak kantuz hasten, beren tozari eta aingeruenak elgarrekin juntatzen direlarik ( kantua hasten da gero-eta-azkarago) ... Helden berri guzietan nahi dituzte beren oihartzak eta beren kanturak juntatu, eta hala-hala doake, menderen-mende, erresumaz-erresuma, gesusen izena ikasiko duten herri handi edo ttipi guzietan ...

Biduan ... Aingeruak populua ere kantatzen du, eta kobla finitzen denean, hasten da oihala.

Oi eguberri gaua  
Bozkari gaua  
Bozkariak n dugu  
Bihotzetek kristaua !



LA FRANCE



La Côte d'Azur - Bandol - Vue générale

Ses Sites

Ses Monuments



Orratza

Hiru zatitako jostagailua

Lehenagoko ichtorioetarik atheroia

—=—



Nor agertuko den:

- D. François Mariun, Begar baita ko ethekanderea  
Escait Gregoria, Chauchaneko ethekanderea  
Erasmus Chechili, Mariunen sehia  
Santsin, Mariunen langilea  
Sauveur Roche, Mariunen multil Herria  
Uchechony Jaun mera

Orratza

Lehen agertia

Mariunen sukaldean

I

Mariun, Chechili eta Roche

Mariun (Kechu-kechua) . - Asa, cherka-zan, haurra!  
Cherka orotan! Cherka ontsa!

Chechili . - Cherkatzen dut, ethekanderea, ontsa  
cherkatzen oraino; baina ez da probetxurik, ez dut  
kausitzen...

Mariun . - Eta hi, zer ari hiz hor, bi besoak dilindan?  
Multiko pirketa, ez hiz ukurtzen ahal ere?

Roche . - Baina... baina... cherkatzen dut!

Mariun . - Bai nite nitek (mazelako bat emarten dio)  
To! itasak obeditzen.

Roche . - Ai!

Mariun . - Asa! belhauniko, eta lichte! Mia  
harmarico azpia, marka-azpia, bacheratei-azpia!

Chechili . - Ez dut fitrik ikusten, ethekanderea!

Roche . - Sebur fitrik ez da azpi huntan!

Mariun . - Zozuak! Inutilak! Inuchentak!  
Behariko duta nihauk lau-azka mublen azpian  
ibili, ene adinean?

Chechili . - Baina nik...

Roche . - Baina gut...

Mariun . - Jatsa ezin har piltzar batez inguratutik!  
Miatu duqueia ondarki-untzia?

Chechili . - Ez!

Roche . - Ez!



2  
Mariun. - Zeren beha hago hor, Chechili madarikatua!

Chechili. - behan niz ( utzia hartzen du, lurrean  
itzultzen, eta husten, ondartinen tertzeko)

Mariun (Koche). - Eta hi, Koche, huri so, amiratua!  
(chimikatzen du)

Koche. - Atch! chimikatzen nazu! ~~me~~ besoa funditzen  
dautazu!

Mariun. - Alferria, hi! nagi hutsa! (beharria  
titatzen dio)

Koche. - Ou! ~~onen~~ beharria! Ou beharria!

Mariun. - Ane! erna norapaik! Mia hautsak!

Koche. - Bon! Bon! (bihatzean, hautsak ihautzen  
diti)

Chechili. - Deus ez!

Koche. - Deus ez!

Mariun. - Nik behar nuen oraino malhur hori!

gairko markea! ... Bilha gazne, ta!

Chechili. - Orotan cherkatu dugun!

Koche. - Nun nahuzn cherkatzea orai?

Mariun. - Cherkatu duguen edozoin tokiban: hain  
zozak gizezte!

Koche. - Bethi bezain gibel izaiteko!! Ez uste izan  
bihar artio cherkatzen ariko girela!

Mariun. - Hunen bekokira! ... Zer tuk aragozin  
tetele hori! Mukuzua ez bertzea! (makil ukalditza)

To! To! makila hautsiko dauat sorbalden gaincan!

Koche. - Ai! Ou! hi! Ooi! Hau emagteki gachton!

Mariun. - Goitearen bortchaz, beharbada atchemanen duk.

II

Berak eta Santzin

Santzin. - Hau ~~du~~ <sup>etiku</sup> harriamantza! Ala fe, garuzeko  
ferrietan ~~ez dute~~ <sup>hulatu</sup> hainbatze aratotsik! ~~egiten~~! Itanikatik  
ezagun ~~duta~~ <sup>teku</sup> hemengo oihu-garasiak!



Mariun . - Ah! hor zira , Santsin !  
Santsin . - Ba, ta, hemen <sup>nuku</sup> ~~nu~~, eder eta fresko, saltsa  
begain aphaindua, ikusten dugun begala! Dena parthea  
eta ichtila ~~du~~ <sup>duku</sup> zure landa. Nihau ere lohi guska  
bat bilhakatua <sup>nuku</sup> ~~nu~~. Ilhea lohi, bizarría lohi, eta  
galtzaki luzhin gorri!  
Mariun , - Gaicho Santsin, ez da deusik hori!  
Santsin . - Ez dela deusik! Aize ari zira, zu!  
Landa bazine! ...  
Mariun . - Bazinaki zer pasatu den sukalde huntan!  
Santsin . (lagtereri beha) Egia erran, desbichta  
edera <sup>dihaga</sup> ~~du~~ barne huntan! Oro airean! Hautsak eta  
ondarkinak zangoen azpian!  
Mariun ! - Ah! bazinaki, Santsin gaichoa!  
Santsin (aire grinatsu batekin) Zer gertatu ~~du~~ <sup>duku</sup> ba?  
Chechili eta Koche (elgarekin) . - Etiekandereak galdu du ...  
Mariun . - Zangte ichtilik, zuek, imbichilak! Eta  
horiek oro zeren gatik? eltzearen gatik, Beltzuntzen  
gatik eta zure galtzen gatik, heren sarestatzen ari  
bainintzen, giza-gaizoa!  
Santsin . - Ez ~~du~~ <sup>duku</sup> porrorik konprenitzen.  
Mariun . - Gaichoa! Hobe duzu ez konprenitzea!  
Chechili . - Zu batean zinen Belegoriko landan.  
Bazinaki zer bizia ereman dugun hemen?  
Santsin . - Erazue ba, azkenean, nik ere jakin  
dezan!  
Mariun . - Hi, er, ama!  
Chechili . - Etiekanderea kadiran jartzen da eta  
zure galtzak galdegiten dauzkit, behar dauzula  
pedachu bat ezorri ipurdian ... Bizpahiru pondu  
ez zituen egin ...  
Koche . - Horra non gatuak jauzi egiten duen  
mahain horren gainetat, suduna eltzeari, eta



pusako batez at estalgia aurdikitzen du ...

Chechili. - Mariun chutitzen da, eihuka: u Hoa heretik  
Beltzelut: Ohorria! Mandila!

Koche. - Zure gaitzak erortzen dira, makila auz-aine  
igortzen dio, gaitzak jauzi...

Chechili. - Eta eltzea uzkaitez da, porruak alde  
guzietarat darizkote!

Mariun. - Ba, eta geroztik ez dugu gehiago ikusi!

Santsin. - Zer ez ikusi? Gatua?

Chechili. - Ez!

Santsin. - Eltzea?

Koche. - Ez

Santsin. - Ene gaitzak?

Chechili eta Koche. - Ez, orratza!

Santsin. - Nungo orratza?

Mariun. - Ene orratz ederra, Santsin gaikhoa! Ene  
orratz luze, orratz fina. Ene altzeinuzko orratz  
maitea!

Santsin. - Orratza! Hoinbertze kalapita orratz  
batentzat? Oihu, nigar, maraska! Eta patata  
churikin hoi sukaldearen erdian... orratz batentzat?

Mariun (hasara). - Zer! Orratz batentzat? Miserable!  
ez dakizu ba zontat gosta diren?

Santsin. - Bo! Paketak zontat egiten da? <sup>tshi</sup>

Chechili. - Bontz libera

Santsin. - Bontz libera! Beha-zagu ba!

Mariun. - Paketeen ez dira hamar baizik.

Santsin. - Halere! Duzun fortunarekin...

Mariun. - ~~eta~~ fortuna? Zer ~~nu~~ derasazu? Pollita  
litake, ene fortuna, orratzak urean barna igortzen  
banitu!

Santsin. - Ato! Ato, Mariun! Orratz baten makunak  
ez ahal zitu tturinduko?



27  
26  
25  
24  
23  
22  
21  
20  
19  
18  
17  
16  
15  
14  
13  
12  
11  
10  
9  
8  
7  
6  
5  
4  
3  
2  
1  
0

Mariun. - Hona zer behar den aditu, hazten ditugun jenden ganik! Segun nitz orotan konda eta konda zabiltzala Mariun aberatza dela; dirua metaka biltzen duela; murrizgileetan ere gordetzen duela zer-nahi urte, zihar eta paper urdin... Zu zirela kausa, ohoiak jinen zaizkiz eta hilen nute.

Santsin. - Zande ichilik, emaztekoa. <sup>Ehiz</sup> Ez dat nix deus holakorik erraiten... Baina orratz batentzat, zinez!

Mariun. - Hona zer den alargun izatea! Ah! ene Patin zenak ikusten banu!

Santsin. - Har-~~aga~~ bertze orratz bat paketean eta emazu baka.

Mariun. - Bertze bat!... Bertze bat!... Badakizu zer mintzo ziren? Fite fini litake paketa, hals hortan enplegatzen baginiku!

Santsin. - Kasu gehiago eginen diozu beniasi.

Mariun. - Chaharra arnas estukoa nuen

Santsin. - Baina, galdua denaz geroz!

Mariun. - Chetka zazu, kausituko dugu.

Santsin. - Hori ez da ene lana! Zertako dituzgu mutkila eta nestkatua?

Mariun. - Zozo hauk deusetako ez dira, Chetka zazu, Santsin gaitoa! Zu gizon serioa zira, hainitz ikusia eta hainitz ikusia. Ene intzesak atxiki nahi dituzgu araz?

Santsin. - Hogurka-hamar urte kuntan zuretzat lanean ari bainiz, ez ahal dugu dudarik... Baina behin behar <sup>nike</sup> nafaldu

Mariun. - Afaldu?

Chetki. - Afaldu?

Kuche. - Afaldu?

Santsin. - Zer ba! Bethe zadazu <sup>chu</sup> azita, Chetki!

Chetki. - Baina...

Kuche. - Ez da...



Santsin. - Zen?

Koche. - Ez dela afaitekorrik!

Santsin. - Ez afaitekorrik?

Chechili. - Ertzea uztaile da.

Koche. - Enana dantzugu.

Chechili. - Garna dela kausa.

Mariun. - Ba preserki, orduan galdu baitut ene ornatsa!

Santsin. (hasane) Orratz eta marratz! Orratz madarikatu honen gatik afaldu gabe egon behar ~~ditate~~ ba?

Chechili. - Gu ere bai.

Koche. - Gu ere bai.

Mariun. - Ni ere bai.

Santsin. - Ja, ja, ja, ja! Soberakina <sup>duku</sup> eta azkenean! Guizetrik arats idia bezala lanean ar, lehentua, eta gero...

Mariun. - Ogi puska handi bat izanen duzu, gizuna!

Chechili. - Emon ogi puska handiño bat.

Santsin. - Ogi! Ogi! Hauke <sup>dilligu</sup> ~~dugu~~ afari ederra!

Koche. - Ez gira ba garizuman!

Mariun. - Itasu min har, haurra, ganibet horrekin.

Emadan ogia; nihaurk pitatuko dinat. Orizu, ogi kantail eder hau zuretzat, Santsin!

Santsin (zinkurinas) Hum!

Mariun. - Hietzat, Chechili! Hietzat, Koche!

Koche. - Chema meheño hau bakharrik?

Mariun. - Beha zozue horria! Itakusoa ~~bat~~ bezarbat ez izaki, eta, otsoak bezarbat jan nahi!

Koche. - Preserki, handitzeko!

Mariun. - Ba hi bethi arazoinka! Nik, hasteko, ez dut bakere janen! Estomaka bildua dut, ez bainezake ahamen bat ere inets.

Koche. - Estakuru ederra, bertzen gore atxikitzeke.

Mariun (gamutuz) Ene intresak beginatu nahi bazinituzte, ni bezain penatuak eta trichtatuak behar



zintezkeke.

Koche. - Alabainan, ogiak dolu egiten!

Marian. - Hi, ago ichilik, hize onetan. Aditu duk, Koche?

Koche. - Genena bezain mehea niz ethe huntan! Sobera chuhurra eta zekena gisa, azkenekotz!

Marian (hats-bahitua). - Zer? Zer?... Itaxazu honen aholik zer aditu behar nuen!... (paloak emaiten diruzka) To! To! Irakatziko dauiat ethekanderearen errespetua!

Koche. - Oh! ez hazi nahi, eta oraino joiten! Nun da justizia?

Marian. - Are! Habil hemendik. Ez kut gehiago ikusi nahi, alferra ez bertzea!

Koche. - Hori duzua? gainkoak ez zitu benedikatuko

Marian. (makila hartuz) Errotiarazi nahi nuka?

Koche (nigaroz ihes eginez) Hi, hi, hi... hit nahi nu (eta alheratzeko kinkan, ahalage) Alto izarra, ordaina izanen du.

### III

Marian. - Egundaino!... Urdia!

Santsin. - Hauche <sup>dihi</sup> ~~da~~ egun ederria! Bai, egun ederria! Zer asera egin dutan kantik zure agi juskarekin! Brien bisaria!

Marian. - Charka zazu ba puchi bat, Santsin gaizua. Segur niz zuk atihemanen dautazula!

Santsin. ja, ja, ja... asechea <sup>hucha</sup> ~~niz~~ orratz demonio hartaz... Estomaka koropilatzen daut <sup>hucha</sup>!

Marian. - Ea, Santsin, utz-azu mutur-salda hori!

Santsin. - Zer nahi duzu <sup>chu</sup> bada bilhen dezadan! Ilkuntze huntan ez da deus ere ikusten.

Marian. - Utz dezagun bada orratz bere ohantzean Bihar goizean, cherkatuko du, Chedili?

Chedili. - Bai ethekandere



27  
26  
25  
24  
23  
22  
21  
20  
19  
18  
17  
16  
15  
14  
13  
12  
11  
10  
9  
8  
7  
6  
5  
4  
3  
2  
1  
0

Marun. - (ohoitze egiten du) San Antonio Padrikoa,  
entzun-azu ene ohoitza! Ene orratza atxemoniten  
& tadut, ... ene orratz ederra, ... hitz emaiten daitezut  
torriko handi bat, eta erretzerat utziko dutala  
bururaino!

---

### Bigarren agorkia

Karrikan. Alde batetik Pegarbarita. Bertzetik  
Chauchunenea.

I

### Koche eta Gregoria

Koche (takanik). - (bera ogi-cherria jaten duenak) Ah!  
sorgin zaharra, jo nun, zimikatu nun, beharriak  
tiratu dauzkidan. Hitz eta promes daunak ez hutala  
huts egiten, parada duketanean. Aditu nahi ez  
duenak ezkilarik, ez dezala tria kordarrik... Afariteko  
tenoreak segurik aspaldi jo du ene tripan. Zebrintikoa,  
gore niz... Ea, behako bat gregoriarren sukaldari!  
(Leihotik jo egiten du) Mahaiarean parria da goithea  
afari ontto baten aintzinean! Hou! zopa horren  
usainari! Alta chingarrak ere itxura ona du!  
Ez nauke! (Leihuari joko) Gregoria! Gregoria!  
Jainkoak dagizula gau on!  
Gregoria - (karnetik) Hi hiza, Koche! Gau on!  
Koche. - Egizu afari, gregoria!  
Gregoria. - Gauza bera, jutil!  
Koche. - Ba, nik laburra dut, laburra, gauko  
afaria!  
Gregoria (leihorak heldu da), ahoa betherik? Hire afaria?  
Za? Ez ahal dut ogi-cherria hori?  
Koche. - Ba, malurusti, idorrik eta hutsik, deus



jakirik gabe!

Gregoria - Giza-gaioa! chingar chaplano bat emanen daukat gainean ezartzeko.

Koche. - Hori haatik!.. Bai plazer egin zinezaket!

Gregoria - Baitan, harritzen nuke! Murruek ez hu kobeki hartzen?

Koche. - Zer nahuzen? Hain pobre da!

Gregoria! Pobre? Maritu? ~~harritzen nuke!~~

Behark hartik! Iniz ustel-arazi nahi nuke!

Koche. - Ba, berri-berrikitan oilo churia ebatsi diote, egun guzietan erroten zuen bakharra!

Gregoria - Oilo churia ebatsi?

Koche. - Badakizu nortaz jeltostua dero?

Gregoria. Nortaz?

Koche. - Ez dugu nehoi salatuko, erraiten badakizue?

Gregoria. - Zertako nahi dute salatzea?... Nori ebatsi diote?

Koche. - Haren arabera... baitan ohoi ez dugu saltsarik nahasiko?

Gregoria. Zer aipentzia! Zer johan zait eni?

Koche. - Hona... Erraiten du zuek egin diozula!

Gregoria. Zer?

Koche. - Zuek... edo zuek nekatoak!

Gregoria (ez jakinez ea imi egin behar duen ala hasarretu) Espres ari hiz, araz?

Koche. - Ez, ez, zin-zinez! (hechirik seguratu aro bazkazitako erre-arazi dugu).

Gregoria. - Jesus! Zer dute ichtorio hori beriz ere!

Koche. - Ba eta hehurnak ere ezagutu omen dituzue organiarene gainean!

Gregoria. (Jurian jartzen da). Hori haatik!! Nuk hari oloak ebatsi! Soberakina da! Pozoin tzarra!



Ez diat kitorik utziko!

Koche (kontent). Itzibela samuri Gregoria!  
Etzagula eman deus ere badatikula.

Gregoria - Sin bedi jensen arpatzerat. Hitz dauint  
ini eginen dugula.

Koche - Baina etzagula zuk lehenik arpa! Ez  
nezagula eman barne, Gregoria!

Gregoria - Zer kopeta!... Ikusiko du...

Koche - Euk! chingarra hitzeman zinatzen!

Gregoria - Chingarra? Hala belzken nuen emazte  
tzar baten muthilari?

Koche - Ez dut nik ~~deus~~ egin! deus hobenik!

Gregoria - Santurusi, oro elgar iduri. Habet  
haren gana, ergel alaena!

Koche - Hoi haatik!... Abisatzen zitut, eta  
gero...

Gregoria - Enok cheketasunak nahi baditu, haren  
zerbitzuko nizea hemen! Gau on! (lehua hesten  
dio sudimerat)

Koche - Hau ichtoria! Ene falta dea? Eta  
chingarra?... eta zapa?... Huri ere mendeakatu  
behar nitzaio! (Mariunen etkerat buruz badao,  
Ehkekanderea atzeratzen da hainbertzenarekin)

x x x

II

Koche, Mariun, Chchili eta Santsin

Mariun - Norat joana hiltzen? Zer dute ala gaua  
kanpoan pasatu nahi?

Koche - Ehkekanderea...

Mariun - Ea, hemendik oherat fitechko, ez badute  
nahi nik beharirik laguntzea...



Koche. - Ez! Adi nezazu, Mariun! Badakit nun den zure orratza.

Mariun. - Zer! Badakitala nun den orratza!

Koche. - Bai, zerbait gogoratu zait, arunt ahantzia nuena..

Mariun. - Zerbait? Erak bada fite!

Koche. - Ochtian, cherkha ari ginelarik...

Mariun. - Eta?

Koche. - Zukalde zolan zinen... Chechitrekin...

Athera buruz itzuli naiz... Beh. betan begiak altchatzen ditut eta ikusten dut Gregoria pasatzen...

Mariun. - Gregoria?

Koche. - Mementoan ez dut kasu egin, bainan orai onsa pentsatu - eta... Bai ukurtu zen <sup>hulu</sup> eta fricht chukitu... zerbait bildu balu bezala athe aintzinean..

Mariun. - Zerbait bildu?

Koche. - Bai, eta hola egin du... nik ez ikusteko.

Mariun. - Nik ez ikusteko?

Koche. - Eta badakizu zerk eman dautan gugorari?

Mariun. - Zerk!

Koche. - Oraindiket, haren lehoaren aintzinean pasatzean, josten ari baitzen argi-pean... Haren erhien artean ikusi dut altzeiruzko orratz luze, mehe, diridratsu bat...

Mariun. - Ene orratza alaintzot!

Chechili. - Zure orratza!

Santxin. - [hur bildu - eta] Ez ~~da~~ <sup>Etik</sup> beraz galduta!

Mariun. - Ez galduta? Ez galduta, bainan ebatsia!

Santxin. - Bederen badakizu nun den!

Mariun. - Harek eni, orratza ebatsi!!!

Chechili. - Oh!!!

Mariun. - Ez niz estonatzzen... Aspaldion orrana nuen emazte honet ez duela fite bat!



Santsin. - Ba, halere zure ithuriko laguna <sup>gure</sup> ~~zure~~ : zorbait  
oren eman ~~dituzun~~ harenka kalakan.

Mariun. - Itakakan, kalakan! Ez du horrek erian  
nahi jendea estimatzen dela... Ikusten duzu  
orai zerbait den kapable?

Santsin! - Europoski othoi! funtsean zer dakizun?  
Onatza harena balitz?

Mariun. - Harena? Ba aise! ... Ez du ez horrek  
holako onatzik. Zepi horrek berehala ezagutu ~~dituzun~~  
guzetarat ereman behar dut, debrua ez badu...

Koche. - guzetarat, Elche kanderoa? ... Baina guzetarat  
badakizuna zer despendoak izanen dituzun?...  
Ez othe ginukema hobe hari berari galdatzen?

Mariun. - Anagoin duk, Koche. Aldi huntan  
anagoin duk. Goazen! Jeger, zuet. Bereak  
behar ditu aditu!

Santsin. - Kasu haatik trompa!

Mariun. - Ez naiz aiserat ari! Goazen aintzina!

Koche (bere buruarakin) Hum! Nste dut orai  
ez dutela ene beharrik! Urundirik iturritu  
dut! (gordetzen da)

III

Mariun, Santsin, Chechili (gibelchka), Koche  
(gordenik), eta Gregoria.

Mariun. - Gregoria! Gregoria!

Gregoria - (lehorat) Noi da hor?

Mariun. - Gregoria, tuma zadazu othoi berehala,  
flazer beduzu, ene oxtasuna! Hogor orthe huntan  
auzo bargin, ez dauz <sup>nik</sup> uti-llitta bat ebatsi.  
Tuma zadazu enea dena bakhean bizitzeko!

Gregoria. - Zer dun, debru nahasia, huntan jteko  
hize ichtorioekin! Muthila ere zerbaito ekkami  
dun, <sup>hurat</sup> ala ni ethean eho nahiz!..



13  
Mariun. - Zer ditun bihu hoiti! Ez nun hoin aise  
izituko, ez! Ene ontasuna nahi dinat, eta izanen  
dinat! Uste dun zer nahitako liburto hizala?  
Ikusiko dun!

Gregoria. - Hail antzara feratzerat, hize  
ontasunarekin! Hi eta hize jende piltzarak!  
Kopeta badun erarteko ohoin bat nizela?  
Okoina, ni? Ebateri daunat niki?

Mariun. - Jakizue ez narizela ainerat mintzo.  
Frogak baditut, frogak onak oraino! Ene atxean,  
ebatsi daunat, bai athe-dintzinean!

Gregoria. - Erakustekin hize frogak, erakuts!

Mariun. - Baditinat eta ashi dun, aditu dun!

Gregoria. - Aise mintzo hiz! Are, are, ahalge  
behar hintake, sorgin zaharra!

Mariun. - Nor ahalge? Ez hiz <sup>hizeguirik</sup> konzientzian  
trituraturik behar topatuko!

Gregoria. - Beha zozue zalamandrana horri!

Mariun. - Ematzara, neska tzarra!

Gregoria. - Sai hadi hize zornitegian! Bartzenas!

Mariun. - Hi, emaztea baki, athera hadi hize  
zimitz-kariolatik. Belduria!

Gregoria. - Beldur ni? Beldur ni?

Mariun. - Hangoi ba hunako bat, santxana  
ez bertzea!

Gregoria (atheratuz). - Huna nun nizan, suge-bipera!

Mariun. - Urdesa, ez zain oren-laurden hau behin  
ere ahantziko!

Gregoria. - Zer uste dun, parasol hautsia!

Bi akumiloz hugita bartz puska egiten hut!

Mariun. - Ikusiko dun, arno-kuia!

Chechili. - E mozu, Mariun! Go, ausik,  
aztaparka-zazu! Matelak marka! Begiak



erokk egin!

Gregoria. - Hori duna? No, atcheman, kañeta  
tzana! Ikasan hize miki zehinaren atchikitzan.  
No! kaska hau ikasteko zer den lehen auzoen  
erespetua!

Santsin! - Hep! Zer da hau? Ez dut deusik  
ikusen nik! Bon maritea! gure Mariun lurrean!

Mariun (deita). - Santsin!

Santsin. - Chuti hortik, Mariun! Hop-la! Norat  
joan da basa-astana hori? Nik matatuho dut.

Gregoria. - Hite? Debruen zigori-pikatzaile,  
iphurdi aintua!

Santsin. - (Mariun) Atchemazu gibelatik!

Mariun. - No, fikuna, atcheman!

Gregoria. - Ah! bira, hi! Ene bizkarrean  
jostatu nahi hiz? No, hize penarentzat!

Zangarretan!

Mariun erortzen da. - Hu!

Gregoria! - Kontent hiza? Ez badun asti,  
ez pasa gata; hize zerbitzuko nun! Gau on,  
chori-mamua! (Echean sartzen da)

Chechili. - Hep, Mariun!

Santsin. - Nan zira!

Mariun. (zinkuruz). - Hemen, lurrean!  
Lagun negazu, chuti nadin!

Chechili. - Gairko maritea!

Santsin. - Ea, chuti!

Mariun. - Zure gainean hondatzen nuen, Santsin!

Santsin. - Hoin lite pasatu da! Ilhutzan ere  
hasia... Bainan ikusiko duzu... Bon maritea!  
Bere etcheda bortha zerraturik ihes egin  
du, den bezalakoak!

Mariun. - Emadagne beroa, eta goazen okherat.



Hu!...

Chechili - Orduan zure ~~ostia~~ ornatza galdua da!

Mariun - galdua? Hitz daunat ezetz. Mera gizon fuska on bat badugu, ene senhar zenaren anai-erdia. Haren hitza igoriko ~~du~~ dut. (oshuka) Koche!

Chechili - Nun da? Koche?

Santsin - Itzali da? Koche!

Koche (herate bezala heldu) Dertzen nugu?

Mariun - Bar. Nun hintzen?

Koche - Eta... eta... lapinen hesteral...

Mariun - Hail meraren ganat, berehala jiteko.

Koche - Meraren ganat? Genore huntan?

Mariun - Errok itusi behar dutala, egiteko biziki serioz batentzat.

Koche - Bere etxean izanen den, solament?

Mariun - Segurki baietz, tenore huntan finitzen ohi du bere afaria!

Koche - Eta... nahiko ducia desarianjatu?

Mariun - ~~Az~~ Oh! hail harekin, chechili! Ponto horrek ez dauku bakarrik deus onik eginen!

Koche - Ez, ez! Bakarrik johan niz!

Mariun - Zoagke, biak... eta gagozke ichtilik! Badut ashi eutanik!

Chechili - Haugi, Koche! (badoa)

Koche - Ai, ai! Saltsa hau ez ohe den mintzen hasia! (badoa)

Mariun - Sar giten, Santsin! (Santsin eta biak etxean sartzen dira)



Hiru garren agerria

Mariunen etchean

I

Mariun eta Santxin

Santsin . - Holache ! Ser zaitte polikiño , etchean-  
drea .

Mariun . - Ai ! Doi-doia banabida ! Uste dut  
saketo ezur guziak hautsi dauzkidan !

Santsin . - Jar zaitte , alki hortan !

Mariun . - Bai... ( jaun nahi da ) Hu ! Oh ! ai , ai ,  
Errainak ! Zangoak ! Deus ezin plega !

Santsin . - Ea , entzea zaitte !

Mariun . - Ez , ez naiz jarriko ! Jar banindadi ,  
ez ninditake gehiago chuti !

Santsin . - Ohea behar duzu , zut ! Zatho . ganbaralat  
lagunduko zaitut .

Mariun . - Bai ohea ! ... Ez da berze eremediorik .  
Haatik behar dut jaun mera mintzatu lehenik !

Santsin . - Ba bairan ... nota egonen zira haren  
goait ?

Mariun . - ( Akharren bizkarari bermatuz ) Chutik  
goaitatuko dut , Santsin , bai chutik !

Santsin . - Izanen duzua asti indar ?

Mariun ( handi-handia ) . - Mendekioak sustengatzen  
nu ! Herrak haziko nu !

II

Mariun , Santsin , Roche , Chechiri , eta  
Jaun Mera

Roche , lasterka . - Hona jaun mera !

Chechiri . - Gurekin heldu da .

Mariun . - Ontsa da . Zaudezte hor , biak .



17  
Koche (joaterat eginik) - Bainan... eta... oherateko tenorea dut!

Mariun. - Enon dautzuet egoiteko. Ashi hola!

Koche (ahapeka bezala) - Bon! Bon!... (choko batean emaiten da, ahantziko ahat dutelakoan)

Mera. - Eia, eia, Mariun, zer da, zer gertatzen da? Apera handi zerbait, dudarik gabe, ni hola gauz gau desarranizatzeke?

Mariun. - Ahi! bazinaki, jaun mera! Estatu batean niz...

Mera. - Zer! Eri zira, Mariun?

Mariun. - Ez ere, ez! nahiz erizekoa baden! Bainan deboilatua, desolatua, inpreziuz emana...

Mera. - Eia, eia, ezti zaitte...

Mariun. - Ene altzeiruzko ornatz edema galdu dut. Etatsi dautel, jaun mera! Eta haren ordain, ilheak erotik egiten dauzate, chintchikatzen nute, laidostatzen nute...

Mera. - Eia, mintza zaitte klarki.

Mariun. - Klarki? Bainan...

Santsin. - Nik erranen dautzut, jaun mera.

Mariun. - Bai, zut errozu, Santsin, errozu!

Santsin. - Horra ba, zer gertata den: aise konprentituko duzu. Que ethekanderea hemen jartzen da ene galtzen arranizatzeke, ez da hala? Gatua ikusten du eltzean; chuhitzen da gatunaren kasatzeko. Ene galtzak erortzen dira, ez da hala? Eta gatua eskapatzen da eltzea uzkaileta. Mehor ez da ornatzaz orhoitzen ere. Bainan zaudet, jaun mera: memento hortan, horra non Gregoria kankaila hori borta aintzinetik pasatzen den, «gau on» eraiteko bezala, ez da hala? Ornatza ikusten du eta biltzen. Bainan denak jakiten dira.



Orduan guse elhekanerea joan gaio polikiño bere  
ontasunaren galdatzerat. Ez zen hortan eraitekorik,  
ez da hala? Baina bertzeak fitrik ez entzun nahi.  
Zer nahi erranka hasten gaio, eta jo gah eta emak,  
ukamilo kaldita, ostikoka... Eta izen batzu, jaun  
mera, izen batzu... niki erran nahi ez nuzkeenak! ez  
da hala? Ba, janna, eta azkenean, ez banintz  
bien artean plantatu, heien baketzeko, hit-hentelaz  
lagundu behar zinituzke, ez da hala? Orai  
gauza kbarki badakitezu, jaun mera!

Mariun. - Bai, denak hala dira, jaun mera! Ez  
denetx haatik soberachko jendea ebats eta gero  
beriz hielka jo!

Mera. - Bai, biziki sobera segui eta halere! Baina  
afera hurek itzalno zontait baditu...

Mariun. - Itzalat? Iguzkia bezain argia da.

Mera. - Ez dut erraiten... baina... halere... gregoria  
behar dugu mintzatu. (Chechili-ni) Zoazi haren  
bitia, haur maiten!

Chechili. - Ontza da, jaun mera.

Mera. - Errozu niki dudala galdegiten, he?

Chechili. - Berehala, jaun mera! (atheratzen da)

### III

Berak, Chechili salbu

Mera. - Mariun, segui zinea erraiten dugunaz?  
Ez da gauza ttipra, nonbarten akusatzea, eta...

Mariun. - Oh! jaun mera! Harritzen nuzu! Zer  
zaitza bada, ala buru arin hetarik naizela, ni?  
fitrik jakin gabe, burua beroturik, mintzatzen  
diren hetarik? Adina badut, esperientzia badut.  
Ez ahal duzu ene fede onaz dudatzen?

Mera. - Ez! Ez! Mariun... Bakarrik...



Mariun. - Ezagutzen nuzu, gaun mera, Ene sethar zena ezagutzen zinuén. Ez gira jende zuzen eta chuchenak gure familian?

Mera. - Baietz, bai... Ez dut erraiten...

Mariun. - Ah! gaun mera, penatzen nuzu! Ez nuen inolakorik aste zure partetik?

Mera. - Eia, eia, ez zitela samur! Orizu, hona gure Gregoria!

Mariun. - Zainak biltzen zaizkit hura ikustean! Ez kasurik egin haren ichtorioeri, gaun mera! Emazte mota horiek oro, titulikatzaileak dira!

#### IV

#### Berak, Chechili eta Gregoria

Gregoria. - Gaunkoak dagizula gau on, gaun mera!

Mera. - Bai eta zuri ere parte on, Gregoria!

Mariun (ahapeka bezala). - Lausegarria!

Mera. - Gregoria, afera tipiti bat nahi nuke argitu!

Gregoria. - Bai badakit. Akusatu nu! Suge-bipera horiek, ziminosak horiek ohoina nizela erran daut!

Mera. - Emekichago, emekichago! Ez zitela hola asalda! *berrocha, barrocha*

Mariun. - Aditu duzu? Zer mihi gartia?

Mera. - Hasarreak ez du onik. Mintza giten ezteki!

Gregoria. - Gaingitua niz, gaun mera!

Mera. - Eia, eia, froga ditazken gauzak erran ditzagun...

Gregoria. - Froga ditazken gauzak? Huna bat: eguerditan aratzeria jan dut.

Mera. - Zure dretioa zen, baina ez du horiek denus ikustekorik gure egiteko hontan.

Gregoria. - Ez duela ikustekorik?



Marian (ahapeka) Burutik badu!

Gregoria -- Ene ondakin guziah miazem ahal dituzue : oilastko hechur bakhar bat atzemaiten baduzue...

Mera -- Ez dugu jakitearen beharrik zor dugu jaten edo edaten...

Gregoria -- Barkatu, barkatu! (Cheshili erakutsiz) Cheshili chintchil horrek behar du hemen aithortu denen aintzinean, ene kontra erran duen gezurra!

Cheshile -- Nik? Zer gezur? Zer erran dut?

Gregoria -- Ba, ba, egizan orai ezjakinarena!

Cheshile -- Oh!

Mera -- Hori bertzalde dugu... Zeren josten ari izan zira aratsalde huntan?

Gregoria -- Josten! Zer! josten?

Mera -- Bai, emadazu arropostua.

Gregoria -- Aithor dautzut galde horrek estonatzem

<sup>nuela</sup> Marian -- Ikusten dugu, gaun mera, ez du ihardetsi nahi.

Mera -- Estona ala mestona, emazu othui arropostua.

Gregoria -- Egan ez dut deus ere josi. Ez dut sekulan josten. Ez dut sofritzen ahal josturan aitzea. Ene linja kanporat igortzen dut sareztatzenat.

Marian (ahapeka) -- Aitiki mintzo da!

Mera -- Norbaitek erran du bada ikusi zaituola.

Gregoria -- Nor~~ba~~ ere barka, errozu ene partez guzaintzi eta amets egin duela. Utz ditzagun jagesa horiek. Huna jina niz frogatu nahiz ez dutala etabri.

Mera -- Preserki...

Gregoria -- Har-azu argi bat, zoazi ~~aitiki~~ Marianen oiloteginat, Haren oilo churia han da.

Marian -- Ene oilo churia? Behar ere!



21  
Gregoria. - Bai niharuk itusia dut. Honet erran nahi du gezurra pentsatu dutela ene fama zikindu nahiz.

Mera. - Eta, era, utz dezagun ~~utza~~ ichtorio hori.

Mariun. - Zer derasazu? ene oilo churiak ez du frogatzen ez dautzula ene orratza hartu!

Gregoria. - Zure orratza? Nor da orratzez mintzo?

Mera. - Harik akort behar gintazke zertaz duzuen ausia! Orratz batez deitu nute hunat.

Mariun. - Ebatsi dautatena.

Gregoria. - Nork?

Mariun. - Zuk.

Gregoria. - Nik? Orratza ebatsi? Oiloa ez zena aski?

Mariun. - Zer oilo?

Gregoria. - Nik ebatsi dautzula lahoa!

Mariun. - Nork akusatu zartu?

Gregoria. - Zuk!

Mariun. - Nik? Ez dut sekulan oitorik aipatu ere.

Mera. - Eta, era! Nunbait izan behar da nahaspildura zertait. Nundik sortu da oilo ichtorio hori?

Gregoria. - Koche, haren mutuil ttipiak parte egin daut medisentzia hortaz.

Koche. - ~~koche~~ (bere chokoan) Ai!

Mariun. - Kochek?

Mera. - Eta nork eman <sup>zuzi</sup> gantzun seguitamena Gregoriak orratza hartu zautzula?

Mariun. - Eta... Kochek!

Mera. - Oh! Oh!



Koche (bere burua gordez) Ai, ai!

Mera - Nun da Koche hori?

Mariun. Koche, haugi hunat!

Koche. - Eta... barkatu!... Deitzen nuzu? So nindagon!

Mariun. So! Iratzartuko hugu, aphi txarra!

Mera. - Hurbil zaitte, Koche! Aithor aitzu zure gezunak.

Mariun. - Eta hitz dauiat pekatuko ditukala!

Mera. - Eia, errak egia, hizan bezalako fikuna!

Koche. - Horra, ~~hura~~ jaun mera... Hala da... Baditake gauza batzu erran ditudan... Noiz nahi erreberiak traditatu...

Mariun. - He? Zer?

Mera (iniz) Erreberiak!

Koche. - Ba, jaun mera! Ahuleziak egiten ~~deut~~ ez bainiz ontsa hazia....

Mariun. - Hunen kopeta!...

Mera. - Ez ontsa hazia? Baina... hize sehi lagunak ez dira ~~plein~~pleinitzen!

Santxin. - Ez pleinitzen, ... ez pleinitzen... baditake: gu ez; gure estomaha da pleinitzen...

Mera. - Ham!

Mariun. - Bon! Bon! Aldi hantako barkatzen drot: onegia naizelakotz, funtzean!

Gregoria. - Aithortzen duzue bada ez dutala hobetrik?

Mera. - Ba segurki, Gregoria! Eta olhoizten zituztet bi auzoak beriz ere adrethode zituzten: eia emague elgarri estua!

Mariun. - ~~Ah! Mera~~ (oihu bat eginez) Ah! Baina...

Mera. - Zer da?

Gregoria. - Zer duzu oraino?



27  
26  
25  
24  
23  
22  
21  
20  
19  
18  
17  
16  
15  
14  
13  
12  
11  
10  
9  
8  
7  
6  
5  
4  
3  
2  
1  
0

Santsin. - Zer duzu?

Mariun. - Baina... baina, ez badaut ebaki,  
ene orratza galdua da!

Mera. - Zer eginen da?

Santsin. - Hala da ordean!

Gregoria. - Zer nahi duzu nik egitea?

Mariun. (nigar hipatia) Ez, ez... Ez dut inolakorik  
jasanen (Ahian erortzen da alditchar bezala,  
baina berehala chutitzen da kolpez orku  
izigari bat eginez) Ai, ai, ai!

Denek. - Zer duzu? - Zer da? - Zer gertatzen  
zaizu?

